



ek!

eta kitto!
euskarra elkarte

2022ko uztailak 15 · 1236. zenbakia

ESKUBALOIA ARNASTEN DUEN HERRIA

DESKONTU
BEREZIAK
VARILUX
LENTEETAN



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiópticas.com



osasun gida

Dentistak



arar
HortzKlinika

"Hortz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
www.ararclinicadental.com
www.clinicadentalarar.com
Toribio Etxebarria 7, 20088

UniverSalud
Mafuz, konpainia eta kolektibo handien fondutako zerbitzu

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Estetika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Pérez Cuatrecasas

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6. bulego 943 206 044

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 beheko esk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidabarrieta, 7-1 esk. 843-702888

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
YOGA kolektiboak

- ENHIBITZE APFA
- KINOSIA, LINDHOLM
- Puztekin orra TRASTORNEN AL
- A-OROKOR + BIZIARRIARRA

FISIOTERAPIA ZENTRUA

ARRAQUETA, 20
Tfn. 943 53 06 42
www.aneformail.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EQUINERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnos: 943 20 72 17

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

B. Izaguirre eta M. Orozco

Unzaga Plaza, 5 - 4. ezkerre Tel. 943 70 23 85

Ginekologia

Dra. Laura Martínez  **Dr. Alejandro Recas**

GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 85 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9-1. C
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PACI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850




943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Herriko ikasleek orain dela aste batzuk amaitu zuten ikasturtea. Asko ikasi dute aurten eta, eurekin batera, guk geuk ere. Horren adibide dira Txikitorako grabatu ditugun elkarrizketa hauek, non ikastetxeetan ikasleek landutako gaiak azaldu dizkiguten.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Eibar Eskubaloia

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Oztopoak gaindituz

Eibarrek betidanik izan du eskubaloiairen inguruko tradizioa, gure klubetatik irtendako eta maila askotan jokatu duten jokalariek erakutsi duten bezala. Eta emakumezkoek, isilago izan bada ere, rol garrantzitsua izan dute ibilbide horretan. Emakumezkoen eskubaloiairen sustraia eskolan dago eta zaletasun horrek eraman gintuen Amaña, Arrate, Armeria Eskola, Aldatze eta Unibertsitatea bezalako taldeetan jokatzera. Gure buruan ez zuten tokirik sektore, finala eta txapelketa hitzek, baina ederki gozatzen genuen.

Baina guztia ez zen arrosa kolorekoa. Bagenekien, mutilekin parekatuta, bigarren mailan geundela. Nesken taldea mutilek Ohorezko Mailara igotzeko eskubidea izateko beharrezkoa zelako sortu zutela ere. Gure jantziak lortzeko rifak saldu genituen, txosnak antolatuta eta "sentadak" egin klubaren bulegoetan. Zenbat entrenamendu kalean kiroldegia eraiki arte! Zelako ordutegiak partiduetarako! Partekatutako aldagelak eta ur hotzarekin hartutako dutxak ahaztu barik, kiroldegitik irteten azkenak ginelako. Askotan jo behar izan genuen guraso eta lagunengana ere, autobusak kale egin zuelako. Asko borrokatu behar izan genuen ikusgarri bihurtzeko.

Aipatutako guztiarekin ere, ezin uka giro ona genuela mutilen eta nesken taldeen artean (kenduta lehen taldeko Olimpoko jaingo eskurazinak). Asko dira anekdotak ere, tartean Gazte-Gogor elkartekoekin edota kuadrilako lagunekin sortutako erronkak. Oztopo horiek guztiak gehiago batu gintuzten eta, kirol arloan ere, entrenatzaileek ondo erakutsi ziguten taldean lan egitea zein onuragarria zen, eta hor ikasi genituen balioek asko lagundu digute gure geroko ohiko bizitzan ere.

Gure erreleboa ziurtatuta dagoela ikusteak pozten nau. Aupa, neskak! Kirola bizi eta kirolaz disfrutatu! Ezin dut amaitu gure ondoan izan diren guztiei eskerrak eman gabe: batzorde, entrenatzaile, delegatu, kiroldegiko langile eta zaletu guztiei. Gure jokatzeko denbora aspaldi amaitu arren, eskubaloia barruan daramagu; horregatik, gure laguntza duzue behar duzuen guztirako.

Inma Kintana (Eskubaloiko Neskak)

Astean esanak



Sagarduiren Sailak eta Dariasen Ministerioak berretsi eta indartu egin dute bereziki kalteberatasun-irizpideak dituzten pertsona taldeei, tartean 60 urtetik gorakoei, zuzendutako enkargua. Primeran ulertzen ditut osasun-arduradunen eta aditu askoren argudioak, baina ez dakit oso ondo nola hartu: espezie baliotsua garelako babestu nahi gaituzte, edo arazo publiko bilakatu gaitzkeelako proposatzen dizkigute berariazko neurriak? Kalteberatasunaren marra 60 urteetan finkatuta, eta zaurgarritasuna orokorra bada eta ez selektiboa, nori iruditu zitzaion ideia on eta onargarria 67 urte bete arte lanean jarraitu behar izatea?

NEREA AZURMENDI, kazetaria

Emakumezkoen futbolearen jarraitu behar dugu, promozio lana ezinbestekoa delako. Nik banekien Eibar B taldeak Euskal Koparen finala jokatu behar zuela orain dela hiru zapatu. Hala eta guztiz, izugarri kostatu zitzaidan partiduairen inguruko informazioa jasotzea. Bidaiatzen nengoen eta twitter, facebook, Eibarren web-a begiratu eta ezer ez. Bakarrik Eibar-en retuit bat, hurrengo egunean, Euskal Federazioak kaleratutako emaitzarekin. Azkenean argazki-galeria zabala lortu nuen bere facebook-ean partekatu zuen zaletuari esker. Komunikabideetara horrelako informazioa bidaltzeko egin behar den ahalegina oso txikia da bertatik neska gazteek lortu dezaketan errendimenduari konparatzen badugu.

ANA RODRIGUEZ FOUZ, jokalaria eta entrenatzaile-ohia

Oharra

Datorren asteko barixakuan (uztailaren 22an) kaleratuko dugu ikasturteko azken alea. Hurrengokoa, udako oporretatik bueltan, irailaren 5ean (astelehena) aterako dugu.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OIÑAZTARRI → Tximista, baina lurrera jausten dena. "Oñaztarrixa jausi zan Eguarbitzan".

OIÑAZTU → Tximista, baina lurrera jausten ez dena. "Eten bako oñastuegaz, zeruak zidurixan sutan".

1955

Sari-banaketa Benta Berriko bolatokian

Plazaolaren argazkian ikusten den ardia ere sariaren parte zen. Ezkerretik hasita lehena, Agapito Anitua. Eta, eskumako lehena, Antonio Urreta "Aterru", El Correo Español egunkariko korrespondentsala.



Farmaziak

BARIXAKUA 15
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ZAPATUA 16
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
DOMEKA 17
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 18
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
MARTITZENA 19
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 20
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 21
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Encarnacion Cepero Arroyo.** 92 urte. 2022-07-06.
- **Juan Bilbatua Elorza.** 91 urte. 2022-07-06.
- **Gregorio Guenetxea Arriaga.** 89 urte. 2022-07-06.
- **Guillermina Rodriguez Fernandez.** 90 urte. 2022-07-08.
- **Jose Oiarbide Perurena.** 92 urte. 2022-07-08.
- **Tomas Cortes Cojo.** 60 urte. 2022-07-08.
- **Irene Murua Galdos.** 95 urte. 2022-07-10.
- **Maria Parada Dominguez.** 96 urte. 2022-07-12.
- **Hermosindo Bravo Lopez.** 80 urte. 2022-07-12.

Jaiotakoak

- **Carlota Aja Etxeberria.** 2022-07-01.
- **Ane Iparragirre Mendikute.** 2022-07-01.
- **Jon Ugarte Alfaye.** 2022-07-02.
- **Laia Benamar.** 2022-07-03.
- **Ainara Lucia Tirados Amador.** 2022-07-05.



EAJ-PNVren udal taldeak gogotsu ekingo dio agintaldiaren azken txanpari

Agintaldia amaitzeko hamar hila-beteren faltan, EAJ-PNV baikor agertu da azken txanpa honi helteko. Ekitaldi guztietan aurrekontu-akordioak lortu eta gero, jeltzaleek diote Eibarren aldaketa askoz sakonagoa lortu nahi dutela 2030erako.

Hiru urte hauetan lortutako akordioei esker aurrera ateratako proiektuen artean, auzoetako aparkalekuak nabarmendu dituzte, baita Ubitxa eta San Kristobal

arteko igogailuak ere. Gainera, laster hainbat komun publiko ipiniko dira martxan, 100 zuhaitz landatuko dira eta ur-parkea jarriko da Txaltxa Zelaian. Horrekin batera, orain arte Udalaren laguntzarik ez zuten elkarteentzat dirulaguntzak lortu dituzte.

EAJren udal taldearen berbetan, “2030erako Eibarrerako plan bat daukagu, eta 10 hilabete barru alkatetzara iritsita bakarrik egin litezke aldaketa horiek”.

Eguaztenetik barixakura egingo da Udako Merkealdien Azoka, kalean eta dendetan

Eguaztenean, 09:45ean inauguratuko dute Udako Merkealdien Azoka Toribio Etxebarria kalean eta hiru egunetan, eguaztenetik barixakura, egongo da zabalik, egun osoan, 10:00etatik 20:00etara. Orotara 30 dendek hartuko dute parte: 18 karpetan egongo dira eta beste 12 dendarik saltokietan egingo dituzte eskaintza bereziak, Eibar Merkataritza Gune Irekiak eta Udalak sustatutako azokan. Kalean saltokia jarriko dutenak

Bambi, Beittu, Burbujas y Más, Designed by Nona, Eskulan, Farmalur, Gigil Design, Gratzina, Guby, Helmet House, Hop Skate Shop, Ikusi, I Love 10€, Kopiaña, No Comment, Otaola Deskantsu Denda, Pissa eta Txukun dira. Eta eskaintzak dendetan egingo dituztenak Askasibar, Cedry, Comercial Zabala, Eleventh Moon, Feder-opticos Igmar, Lahidalga, Los Chicos, Marais, Oskarbi, Twins, Vieco eta Zentral Optika dira.



Era guztietako 45 Lambretta elkartu ziren Eibarko topaketan

Eibarko Lambretta Klubaren eskutik, aurreko asteburuan egin zuten marka horretako motorren topaketa, barixakutik domekara bitarteko egitarauarekin. Topaketaren harira 45 bat Lambretta elkartu ziren Eibarren, denak ezberdinak eta mimo handiarekin zaindutakoak. Zapatu goizean horiek ikusteko aukera egon zen Untzagan eta, ondoren, herriko kaleetan egindako kalejiran. Bestalde, Arraten egindako bazkarian, Enrique Mugarza omendu zuten.



Aldatzen elkarrekin ikasi zuten lagunaren bazkaria

Argazkian ikusten dituzuenak Aldatzeko ikasle ohiak dira eta, eskola aspaldi amaitu bazuten ere, urtero elkartzeko ohiturari eutsi diote. Batera ikasten ibilitako lagunak zapatuan elkartu ziren Zaurautzen, bazkaldu eta egun pasa ederra egiteko.



Errekatxuko lanek Bidebarrieta eta San Agustineko trafikoari eragingo diete

Ur-beltzen eta elektrizitatearen sareak sare publikora konektatzeko lanean ari dira Errekatxuko etxe-promozio berriari eta, ondorioz, Bidebarrieta eta San Agustín kaleetako trafikoan aldaketak egongo dira abuztu amaierara arte. Udalak adierazi duenez, “aldaketak ahalik eta txikiak izan daitezten”, ibilgailuen zirkulazioa uneoro zabalik egongo dela bermatu nahi izan dute, “nahiz eta, horretarako, hainbat aparkaleku kendu behar izan, zirkulazioa desbideratu ahal

izateko. Bestetik, San Agustín kalean zabaldu behar den zanga nahiko sakona izango da eta baliteke uneren batean ibilgailuentzako itxi behar izatea”.

Oinezkoen dagokienez, Bidebarrieta kaleko 20. eta 24. zenbakien arteko igarobidea kendu dute eta, horren ordez, behin-behineko bi pasabide jarri dira, gaur egun dagoenaren bi alboetan, eta bi metroko altuerako hesiak jarri dituzte, “oinetako segurtasuna bermatzeko”.

Auzoko nagusien bazkariarekin amaituko dira Amañako jaiak

Gaur eguerdian auzoko nagusientzat antolatutako bazkariarekin esango dute agur Amañako jaiak, datorren urtera arte. Jai Batzordeetik oso pozik daude aurreko asteburuan ospatutako jaiak izan duten arrakastarengatik eta, eguraldia lagun, jende asko ibili zelako antolatutako jarduera guztietan. Aurtengo jaietako txupinazoa Eskozia La Brava taldekoek bota dute eta, beraien parte-hartzeari esker, jaiak kolore berezia izan dute oraingoan.



Epaitegi zaharrearantz gazteentzat alokairuko 19 etxebizitza egiteko lanean hasiko dira

Eibarko Udalak exekuzio-proiektua onartu eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari obrak egiteko lizentzia eman eta gero, Bittor Sarrasketa kaleko 5. zenbakian dagoen epaitegi zaharreko eraikinean gazteentzako apartamentuak egiteko lanak aste honetan bertan hasiko direla jakinarazi dute. Azaldu dutenez, “eraikinak urteak daromatza hutsik eta oso hondatuta

dago. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak birgaitu egingo du, egitura eta eraikuntza-parametroei eutsiz eta erabilera berri batera egokituz”. Eraikinaren birmoldatze integrala egingo da, udalerrian bizi diren gazteentzako alokairuko 19 zuzkidura-bizitoki sortzeko (lagun batentzat edo birentzat). Hiru solairu izango ditu eraikinak eta solairu bakoitzean sei apartamentu egongo dira.



Hiru etxegabetze gertatzeko arriskua dagoela salatu dute

Deba Balarako Kontseilu Sozialistak eta Sadaqa Elkarteak eguazteen prentsaurrekoa eman zuten, Eibarren hiru lagun etxegabetzeko arriskuan dagoela salatuz. Azaldutakoaren arabera, “arrazoi ezberdinak medio, pertsona hauek zaurgarritasun egoeran daude: lana galdu izanagatik, prestazio sozialak ukatu zaizkielako eta bizitzaren garestitzeagatik. Hala, errentzatzaileak tranpa juridiko eta mekanismo judizial ugari erabiltzen ari dira, lagun hauek etxe gabe uzteko”. Irtenbiderik aurkitu ezean, pertsona horiek beraien etxeetatik kanpora botako dituztela ohartarazi zuten agerraldian, etxegabetzeak “era isilean” egingo lirakeela azpimarratuta, maizterrak bi elkarte hauengana laguntza eske joan izan ez balira. Diotenez, azken urteotan larriagotu den krisiaren eraginez, biztanleriaren gero eta sektore gehiago pobretzen

ari dira eta bizitzaren garestitzea orokorra eta etengabea da: “Etxebizitzaren kasuan Hego Euskal Herrian alokairuaren prezioa %30 baino gehiago igo da azken bost urteotan, %40 Nafarroan. EAEn eraikitako etxebizitzaren prezioa ia %17 igo da denbora tarte berean. Babes sozialeko etxebizitzaren prezioak ere etengabe egin du gora. Bitartean, PIB sarrerak, besteak beste soldatak eta prestazio sozialak, ez dira apenas igo”.

Gauzak horrela, “gero eta jende gehiagok dauzka zailtasunak etxebizitzaren gastuei aurre egiteko eta etxegabetzeak izateko arriskua areagotu da”. Gogoratu zutenenez, “2015ean Udalak Eibar etxegabetze bariko hiri izendatu zuen bere burua, eta horrek ez du ordutik gertatutako hamarnaka etxegabetze gertatzea ekidin”. Aurrera begira mobilizazioak iragarri dituzte.



Ziburu-zaura berriak ipini dituzte Txaltxa Zelaiko haur parkean

Txaltxa Zelaiko haur-parkea berritu dute, jolas berriak ipinita. Lanek 18.149 euroko aurrekontua izan dute. Parke berriak etxola-txirrista eta bi kolunpio-gune (bata kolunpio habiarekin eta beste bat bi kolunpioz osatua, bata laua eta bestea habia) dauzka, eta kautxuzko zorua jarri dute azalera osoan.



Miguel Angel Blancoren heriotza gogoan

Miguel Angel Blancoren eta ETA-ren gainontzeko biktimen omenez eta aitortenez elkarretaratzea egin eta bost minutuko isilunea gorde dute eguazten eguerdian Untzagan, udaletxe parean, FEMP (Federación Española de Municipios y Provincias) elkartetik egindako deialdiarekin bat eginuz.



Akondiako San Pedro ermita, bere jai egunean. On Pedro konjurua egiten. EGO IBARRA (LASERMITAS DE EIBAR, 1996)

Urtean behin, abadeak lurzorua bedeinkatzen zuen baserri baserri eta, ordainetan, oilaskoak ematen zizkioten Oregizar baserrian. Bedeinkazioa nolakoa izaten zen kontatzen du Jesusak. San Juanetan, ordea, oinaztuetatik babesteko bedeinkazioa egiten zuen abadeak.

Bedeinkazioak, uzta onak izateko eta oinaztuetatik babesteko

Jesusa Aranzeta Gisasola
(1938)



Jesusa Aranzeta Eibarko Aginaga auzoko Oregi Zar baserrian jaio zen eta bizitza guztian bizi izan da baserri berean. Egoibarrako “Eibarko Ermitak” proiektuan parte hartu zuen, baserri ondoan duten San Migel Txiki edo San Migel Oregizar santutxuarengatik. Bere senar Juan Agirregomezkortak ere parte hartu zuen elkarrizketan.

Jesusa Aranzetari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Ba, erramu egunien bedeinkatzen ziren makilla batzuk, kurutza batzuk eginde, erramue sartute, sorbie egoten zan. Harek, erramuek, bedeinkatutako kurutzak ipintzen ziran sologunian, ta paternosterra botatzen zan sologunian, bedeinkaziñuan. [Eta sorbiek ez daka zerikusirik Sanjuanekin?] Sanjuanetakua loria izaten da, ta Erramu egunekua izaten da erramu ereinotza kurutzekin, zera, kurutzak egurrekin, sahatsakin (...) Basarri basarri ibiltzen zan abadie, solugunien, soluk bedeinkatzen.

Gaur egingo dute eztanda San Kristobal auzoko jaiek

Derrigortutako etenaldia eta gero, jaiak ospatzeko gogotsu daude San Kristobal auzoko jai-batzordeko kideak, baita auzoan bizi direnak ere. Hori dela eta, asteburu osoa betetzeko moduko egitaraua prestatu dute, era guztietako jarduerekin: haurrentako jolasak, ume zein helduendako txapelketak, hitzordu gastronomikoak, kalejirak, kontzertuak... denetarik egongo da gaurtik domekara bitartean eta, jakina, herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte eurekin bat egin eta jaiak ospatzera.



San Kristobal auzoko jai-batzordeak festen aurkezpena egin zuen zapatuan, Udaleko ordezkariekin batera. Esan zutenez, eurentzat azken urtea izango da, antolakuntzan erreleboa egotea espero dute eta. Hala ere, atzetik datozeinei laguntzen ibiliko direla adierazi zuten. Eguraldi eguzkitsua lagun zutela, gogotsu hasi zituzten jaiak domekan, San Kristobal egunean. Goizean txupinazoa bota eta, bazkaltzeko ordura arte, umeendako jolasak, tirolina eta marrazki-lehiaketa egin zituzten, besteak beste.

Hala ere, jaiek asteburu honetan egingo dute eztanda, gaurtik domekara bitartean auzoa girotzeko prestatu duten egitarauari esker. Gaur arratsaldean, 19:00etan, kalejira egingo da auzoan zehar 'La banda magnética' taldearekin eta 19:15etik aurrera tortilla, txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta banatuko dute tabernetan, txikiteoan dabilen jendearentzat. Gauerako, berriz, kontzertu bikoitza prestatu dute. Ohiko martxan, gaurko gauerako rock musika egiten duten bi talde aukeratu dituzte: 23:00etan 'Cien duros' taldekoak arituko dira zuzenean eta, ondoren, 00:15 inguruan 'Trogloditas' taldekoen txanda izango da. Bi-



San Kristobalگو jaietako antolatzaileek eta auzokideek ilusio handiarekin hasi zituzten jaiak aurreko domekan.

garren hauek Loquilloekin batera aritu ziren 1983az geroztik, 2007. urtera arte: hasierako taldetik ia gehienak desagertuta zeudela eta, taldearen izenari zentzurik ez zion ikusi Loquillok eta bere bidea bakarrik jarraitzea erabaki zuen. Hala ere, omenaldi baten harira, 'Trogloditas' taldea martxan ipini zen berriz ere, 2012an.

Taldekideek kontatzen dutenez, "ideia 2011ko udazkenean sortu zen, Guille Martinen omenez Zaragozan urtero egiten zen omenaldi batean jotzea proposatu zigutenean. Jatorrizko Trogloditas taldetik geratzen zen kide bakarrenetakoa zen bera, Espainia mailako rock-eko gitarrista historiko eta mitikoa. Trogloditas taldeko kideak elkartu eta pare bat kantu jotzea zen hasierako asmoa". Baina esperientza haren ondotik jarraitzea erabaki zuten eta horrela bueltatu ziren eszenatokietara "trogloditak".

Camilo Sestoren musika

Bihar, bestetik, 12:15ean sandia-jana egingo da Aizarnako parkean eta 12:30ean Lambretta motorren igoera "klasikoa" egingo da San Kristobalera, nahiz eta Lambretta motorren topaketa aurreko asteburuan egin zuten. Arra-

Gaur arratsaldean, 19:00etan, "La banda magnética" taldearen kalejirarekin hasiko da asteburu osoa beteko duen jai-egitaraua

tsaldean, 19:00etan, dardo-txapelketa egingo da San Kristobalگو plazan; 19:30ean Dominguez mariatxiak 'callejonada' eskainiko du; 21:00etan herri-afaria egingo da plazoletan; 22:30ean DJ Xantik 70'-80's festa eskainiko du; eta 00:00etan Camilo Sesto abeslariari laguntzen zion 'Algo de mi' izeneko bandak kontzertua eskainiko du; ordu berean DJ Xantik beste hamarkada batzuk aurrera egingo ditu eta 80'-90's festa eskainiko du; eta zapatuko egitarauarekin amaitzeko, 02:30ean txokolatada eskainiko da, musutruk.

Domekan, 12:30ean, paella-txapelketa egingo da, 13:45ean amaitzeko. Tartean, 13:30 inguruan, luntxa eskainiko zaie plazan agertzen diren guztiei. 14:30ean, lehiaketaren sariak banatu ondoren, rifa zozketatuko da. 18:00ean, azkenik, jai amaierako traka egingo da.

Ipuruako merkatu plazari bizitza eman nahi... baina ezin

Ipuruako Merkatu Plaza Elkartea (IMP) 2018ko abenduan hasi zen auzoko merkatu plaza erabilera kultur-kreatiborako eta herritarrentzako elkargune bilakatzeko proiektuarekin. 2019ko apirilean Udaleko plenoaren babesa jaso zuten eta eraikinaren erabilera eta gestio-mota zehazteko prozesu partehartzailea egin zen Udalak kontratatutako EMUN Aholkularitzaren laguntzarekin. Bi urte eta erdi pasatu dira, baina, halere, oraindik ez dira eraikina erabiltzen hasi. Ez dute nahi eraikinaren birgaitze proiektua aitzakia izatea eraikinera sartzeko data atzeratzeko. Eraikina erabiltzen hasteko gutxieneko konponketa eta lehendabiziko hornikuntzari lehentasuna ematea proposatzen dute.

Ipuruako Merkatu Plazari berrirabilera emateko sinadura bilketa
CHANGE.ORG bidez



Auzotarren ekimenez sortutako IMP Elkartek eraikinaren gutxieneko lanak egitea eskatu dio Udalari behin eta berriz; 2019ko urriaren 10ean bidali zen lehendabiziko eskaera idatziz. Momentuz, gutxieneko lan horiek, hau da, eraikina modu seguru baten erabili ahal izateko lanak, amaitu gabe jarraitzen dute.

Elkarteko kideen esanetan, "eraikinari bizitza ematen saiatu gara, baina berogailu falta, eta giltzak lortzeko zailtasunak medio, ez dugu lortu. Ez dugu nahi birgaitze proiektua aitzakia izatea eraikinera sartzeko data atzeratzeko. Birgaitze proiektuaren oinarritzko proiektua eta egikaritze proiektua gauzatzen diren bitartean eraikinean egotea eskatzen dugu, eta horretarako eraikina erabiltzen hasteko gutxieneko konponketak proposatzen ditugu".

Prozesu partehartzaile baten ostean txosten batzuk irten zirela azaldu digute elkartetik: "Gure antolatzeke modua autogestioa izango zela atera zen. Horren ondorioz elkarte moduan eratu ginen, horri bultzada emateko, eta hor hasi gi-

nen eraikina lortzeko arazoekin. Aitzaki legalak jartzen dituzte; arazo horiei irtenbidea eskaini diegu eta, hala ere, horgelditu da *estankatuta*. Hori kontuan izanda, eta aurrera jarraitu ahal izateko, eraikinaren lagapena edo *zesioa* izan beharrean, bururatu zitzaigun urteko barixaku, zapatu eta dokemetarako eskaera egitea; bestela, arazoa da, eskaerak hogeita bat egun lehenago egin behar dituzula. Baina hori ere ez dugu lortu. Orain bilera bat egin nahi badugu ezin dugu egin, hiru aste lehenago eskatu behar delako".

Zailtasunak besterik ez

"Ez dugu ondo ulertzen zer gertatzen den. Erantzun bat nahi dugu Udalaren aldetik, baietz edo ezetz esatea, eta, atzetik zeozer badago, hori ere argi eta garbi esatea", adierazi dute. Orain arte zailtasunak eta trabak besterik ez dituztela aurkitu diote eta, horregatik, mozioa aurkeztu dute hilabete honen amaierako udalbatzak eztabaidatu dezan. Horrekin batera, sinadura bilketa hasi dute (ezkerrean daukazuen QR kodigoa eskaneatuz sinatu daite-

Eraikinaren lagapen kontratua zehaztu eta sinatu bitartean asteburuetan eraikina erabiltzea eta giltzen kopia bat eskatu diote Udalari mozio baten bidez

ke). Nekatuta daude, baina ez dutela etsiko eta auzoarentzako elkargune baten alde lan egiten jarraituko dutela esan digute.

Hasierako proiektua hankaz gora

Udalak kontratatutako arkitekto-taldeak eraikin osoarentzako proiektua egin zuela (sotoa, erdiko solairua eta altilloa) eta lanketa horretan udaleko ordezkariak eta teknikariak egon zirela azaldu digute IMP elkarte-koek: "Tarteka bileretara gonbidatzen gintuzten, ematen ari ziren pausoak ikusten joateko. Dena zoragarri zihoan. Proiektua amaitu eta gero, publikoki ezagutzera eman nahi izan genuen, eta orduan atzera bota ziren: sotoa ez zutela proiektuan sartu nahi esan zuten bapatean, brigadak erabiltzen duela eta horrela izaten jarraitu nahi dutela. Beraz, hasieratik mozio baten bidez Udalak onartutako eraikin osoarentzako ideia bapatean hankaz gora jarri zuten". Elkartek ez du hori onartzen eta "nahiago dugu dagoen moduan erabiltzen hastea eta, jarduera desberdinak eginez, proiektua arrakastatsua dela erakustea. Sinadurak jasotzen hasi gara eta herriko talde eta eragileekin jarri gara harremanetan. Interesa dagoela ikusi da. Odisea elkarte, Judas Argarate taldea, Debabarrenako Orfeoia,



Eibarko ume eta familiei zuzendutako espazio bat proposatzen du IMP Ipurua Merkatu Plaza Elkartek, funtzio anitza eta intergenerazionala izango lukeen eraikina. Argazkian, Odisea elkarte-koekin orain dela gutxi antolatutako jarduera.

LAB, Urban Sketch, Poesia eres tú... eta beste hainbat entitate jarri dira gurekin harremanetan. Bi ekintza egin ditugu eta biak oso ondo joan dira. Hori bai, 21 egun lehenago lekua eskatuz, giltza hartzeko udal-txera joanez...". Bestalde, proiektua gauzatzeko Ikasten Esperientzia Eskolako laguntza oso ondo etorriko litzaikeela uste dute, eta horretarako gonbitea luzatu nahi izan diete Ikastenekoei lerro hauen bidez.

Mozioa uztaileko planoan

Martxoan bilera bat egin zuten Udaleko ordezkariekin korapiloa nola askatu zitekeen ikusteko. "Oraindik erantzunaren zain gaude. Txostenen

zain daudela esaten digute, besterik ez. Ez dugu ulertzen zergatik hainbeste denbora, egin beharko liratekeen konponketak oso txikiak direnean (barandilla bat jarri, baldosa batzuk pegatu, galdara ipini, itoginak konpondu, sukaldetxo txukundu...). Erraztasunak ematea eskatzen dugu, hau da, giltzak ematea eta eraikina asteburuetarako lagatzea (horrela gure agenda bat egin ahal izango genuke). Oso astuna egiten zaigu egoera hau. Mozioa aurkeztu dugu aste honetan, erantzun bat eskatuz: eraikinaren lagapena edo, bestela, horrela jarraitzea, baina barixaku, zapatu eta dokemak guretzako libre ditugula jakinez", esan dute.

ALEX DAVIES • Musikaria

“Gasteizeko Jazzaldian jo dugu, flipatzen nago”

Parrapas erronomia taldea, Ustekabe fanfarrea, Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra (EIJO), Slide eta Indabak taldeak... Proiektu asko dira, Alex Daviesek musikari dion maitasunaren adina. Edozein estilotan aritzeko gai den eibartarrari berdin zaio zer jo, berak musika du maite.

Aurreko barixakuan EIJOren kontzertua izan genuen Errebalean eta bertan izan zen Alex Davies. Gainera, berak konposatutako abestia jo zuten. Kontzertu berezia izan zen berarentzat, baina ez da udan zehar bizi izango duen bakarra, beteta baitartokio sasoi hau. Besteak beste, martitzenean Gasteizko Jazz jaialdi ospetsuan jo zuen, berarentzat erreferente diren izen handiekin kartela partekatuz.

Zer moduz barixakuan Errebalean eskaini zenuen kontzertuan?

Oso polita! Ama, amama, Musika Eskolako irakasleak eta beste hainbat lagun bildu ziren eta berezia izan zen. Ia-ia etxe azpian jo genuen, Jardinetan bizi naizelako. Gainera, nik konposatutako abesti bat jo genuen lehen aldiz. Izan ere, EIJOk sarrera-probak egiten ditu eta aurreko konposizio-proba ere egin du. Neure burua aurkeztu nuen, musika idaztea asko gustatzen zaidalako. EIJO, berez, gazteentzako jazz orkestra eratzeko sortu zen, baina orain dela hiru arte jazzetik aldentzen hasi zen, euskal musika tradizionalaren eta jazzaren arteko fusioa eginez. Beraz, abestia konposatzeko orduan baldintzak ziren euskal musikaren instrumentu tradizionalak erabiltzea eta euskal kanta herrikoi batetik abiatzea, besteak beste.

Zein musika-tresna aukeratu zenituen?

Txirula, txalaparta eta panderoa. Beste musika-tresna batzuk sartzea gustatuko litzaidake (alboka eta trikitixa, adibidez), baina zaila egiten zait ezagutzen ez ditudan instrumentuentzat idaztea.

Eta zein euskal kanta herrikoitik abiatu zinen?

Bilboko kontserbatorioan ikasten nabilez, bertako liburutegian Resurreccion Maria Azkueren Euskal Kantutegian abestiak bilatzen hasi nintzen. Eibarko kanten bila joan nintzen, baina ez nuen batere aurkitu. Beste kantutegi batean agertzen dira Eibarkoak, baina esku artean nuen horretan ez. Beraz, Ermukoak bilatu eta hiru aurkitu nituen. Aztertu nituen eta ‘Dirurik Zuririk’ aukeratu nuen. Benita Zarandona da letraren egilea eta Lekeitioko Atxia Motxiaren bertsio batetik egindako beste bertsio bat da. Orduan, abestia konposatzeko orduan Atxia Motxiaren eta Dirurik Zuririken letrak erabili nituen.

Nolako itxura hartu zuen abestiak?

Iaz ere EIJO n egin nintzen eta jazz, swing eta latin erritmoen falta igarri nuen. Beraz, jazz orkestra garenez, swing kutsua eman nahi izan nion konposizioari. Hasieran nahiko tradizionala da, erritmoa aurkezteko, eta gero swinga sartzen da, hatzekin kriskitin egiteko.

“Zuzentzea gustatuko litzaidake, baina EIJOko lagunekin nik idatzitako abesti bat jotzea zoragarria iruditu zitzaidan”



Irailetik aurrera Katalunian egingo ditu musika ikasketak Alex Daviesek. EKHI BELAR

Abesti horretan zu izan zinen orkestraren zuzendaria?

Ez, nahiago nuen jotzea. Zuzentzea gustatuko litzaidake, baina lagunekin nik idatzitako abesti bat jotzea zoragarria iruditu zitzaidan. Kontzertu ederra izan zen eta martitzenean esperientzia hau biribildu genuen Gasteizko Jazz Jaialdian. Flipatzen nago.

Ezin izan zara Ustekabekoekin Sanferminetan egon. Dena dela, nolako agenda duzue udarako?

Maiatzetik aurrera zenbait tokitan jo eta su ibili gara, Sanjuanetan gora eta behe-
ra, eta udan ere musika jotzen gozatze-
ko aukera izango dugu. Ustekaberekin
jotzea demasa da, lagunekin nabilelako
eta ondo pasatzen dudalako. Demaseko
giroa dago taldean.

Aretoetan, eszenatoki gainean, kalean... toki askotan jotzen duzu. Nola egokitzen zara egoera bakoitzera?


Ez dut bereziki horretan pentsatzen. Jotzea tokatzen den tokira noa, jotzen dut eta kitto.

Eta exigentzia-maila bera da toki guztietan?

Ustekaberekin jotzen dudanean modu arinagoan hartzen dut EIJOrekin nabilenean baino, adibidez. Izan ere, EIJOrekin astebetetz barnetegi batean egon gara buru-belarri entseatzen, bestela urtean zehar ez gaudelako hainbeste elkarrekin. Gainera, Gasteizeko Jazzaldian jo dugu eta ez da edonolako tokia. Ustekaberekin, ostera, gehiagotan ibili naiz, ondo ezagutzen dugu elkar, jai-giroan gabiltza kalean... Beste gauza bat da. Proiektu bakoitza ezberdina da.

EIJO n baxua jotzen duzu, Ustekaberen saxofoia, Indabaken bateria... Orkestragizona zara!

Txikitan saxofoia ikasten hasi nintzen Musika Eskolan, baina handik urtebe-



Alex Daviese saxofoia jotzen du Ustekabe fanfarrean. USTEKABE

“Ustekaberekin jotzea demasa da, lagunekin nabilelako eta ondo pasatzen dudalako. Demaseko giroa dago taldean”

tera baxua hartu nuen. Harrezkero, musika-tresna biak uztartu ditut. Hasieran musika jotzea zaletasuna zen niretzat, beste barik, baina Batxilergoa hasi nuenean Parrapas erromeria taldearekin eta Ustekaberekin hasi nintzen, eta aldaketa igarri nuen, ez zelako Musika Eskolan jotzea bezala. Kalera irteten ginen, gaztetxeetan jotzen genuen... Gehiago prestatu behar ginen, baina dirua irabazi ahala jotzeko baldintzak hobetzen joan ginen eta, horrela, musiko bezala garatzen joan nintzen. Orduan, baxuarekin serioago hasi nintzen.

Musikaren munduan bidea egin nahi zenuela ikusi zenuen?

Batxilergoa egin ondoren ez nuen oso argi zer ikasi nahi nuen. Industria-ingeniaritza egitea sartu zitzaidan buruan eta neure burua autokonbentzitzen saiatu nintzen, baina gero soinu-ingeniaritza egitea bururatu zitzaidan. Ezetz ikusi nuen, nahiago nuela musikaren bidea

hartu eta, orduan, Batxilergoa amaitzerakoan soinu-teknikari ikastaroa egin nuen eta kontserbatorioko frogetarako prestatzen hasi nintzen, ondoren musikako goi-mailako ikasketak egiteko.

Nola joan zaizkizu ikasketak?

Bilboko Kontserbatorioko 1. mailan sartzeko frogak egin nituen eta horrela sartu nintzen, baina musikarekin buru-belarri nebilenez, ia urtebetean 4. eta 5. maila egitera pasa naiz. Maiatzean Kataluniako Goi-Mailako Kontserbatorioan sartzeko frogak egin nituen eta hartu egin naute, kontrabaxuarekin.

Kontrabaxuarekin?!

5. mailan kontrabaxua jotzeko aukera izan dut eta asko gustatu zait. Baxuarekin alderatuz ez da teknika bera erabiltzen, baina beno, baxu elektriko bat kontrabaxu txiki bat da azken batean. Gogotsu noa Bartzelonara eta, ikasteaz gain, begien aurrean mundu berri bat irekitzen zaidala sentitzen dut.



Jazza Errebalen. JKBixen

Aldundiaren basoen kudeaketarekin zalantzak ditu Baso Biziak elkarteak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Basotik fundazio publikoaren sorreraren berri eman zuen ekainean. Bere esanetan, baso masaren bolumen garrantzitsua biltzea da helburua, "Gipuzkoako basoen kudeaketa jasangarrirantz jauzi kualitatibo bat egin ahal izateko eta, horrela, lurraldearen garapen integrala eta kudeaketa ekologikoa bultzatzea, eta, azken batean, ingurumenaren eta baso ondarearen defentsa eta lehen sektorearen garapena bilatzea".

Eibarko Baso Biziak elkarteari, ostera, zalantza asko sortzen dizkiote Foru Aldundiko arduradunek egindako adierazpenek. "Izan ere, estatutuak ez dira oraindik publikoak eta, hala ere, aurrekontuetan bi milioi euro zuzendu zaizkio delako fundazioari", aipatu dute elkartekoek. Are gehiago, gezurretan ari direla diote: "Gipuzkoako basoek %61,5eko azalera hartzen dutela diote. Beraientzat landaketa monoespezifikoak ere basoak dira eta errealitate gordina zera da: Gipuzkoan %25 dela basoa."

Zentzu horretan, Baso Biziak definizio maila interesatua ikusten du baso hitzaren inguruan. "Etengabe, ustiaketa industrialari buruzko aipamenak agertzen dira horren eginkizuna definitzeko. Horrek guztiak argi eta garbi adierazten digu monolaborantza mozorrotuaren aldeko apustua dutela mahai gainean", dio elkarteak.

Euren ustez, "jabego pribatuen lurrei begira egin nahi duten interbenzioa zehatz mehatz kuantifikatzen

dute (40.000 hektarea), baina ez da gauza bera gertatzen kontserbaziorako edota baso-babesleen figuraren inguruan. Beharrezkoa ikusten dugu aipamen zehatz hori, bestelako ikuspegi berritzaile bat martxan jartzeko asmoa dagoela baloratzeko eta betiko epe laburreko eredu ustiatzaile ekonomizistetan ez erortzeko".

Basoak etekin industrialerako

Baso Biziak iritziak, basoak etekin industrialaren bidean jarri nahi ditu Foru Aldundiak, "monolaborantzari eutsiz eta enpresa berri bat sortuz, gerora diru publikoarekin pribatizatzen", diotenez. "Ez da eredu jasangarria lurarentzat zein gizar-tearentzat", gehitzen dute.

Elkartearen balorazioaren araberak, "azalera hori kudeatzeko monopolioa sortu beharko lukete, proiektuan sartu nahi ez dutenen gainontzeko herri-ereduak hondamendira bultzatuz ezin izango baitute bere kontra lehiatu, 'dumping' edota 'lehiakortasun zitala' sor dezakeelako".



Foru Aldundiak aurkeztu duen Basotik fundazioarekin kritiko azaldu da Baso Biziak elkarteak. EKHI BELAR

Beste puntu batean, jabeek egin beharreko lurren lagapena aipatzen du Baso Biziak elkarteak. “Jabeek ez lukete ezer egin behar, lurrak Aldundiari laga eta urte bukaeran kontsentsazio ekonomiko bat ko-bratu. Horrek, kudeaketan, lehen sektorearen eta baseritarren ‘abandonua’ eta burujabetza ahalmenaren desagertzea ekarriko luke. Guk bestelako lur lagapena nahi dugu”, azpimarratzen dute.

Basoek hondamendien aurrean izan dezaketen rolaz ere aritu da Baso Biziak. Izan ere, Basotik enarbera basoen rola funtsezkoa da hondamendiak (suteak eta uholdeak) prebenitzeko edota higadura saihesteko. “1994-2030 planean 70.000 hektareatan ‘baso-babesleak’ ezarri behar zirela esaten zen. Zortzi urte falta dira eta ez da izendatu hektarea bat bera ere. Basotik martxan jarriko al du plan hori? Ez dugu uste, aukera eskura izan baitute”, diote.

Basotik bultzatu dutenek adierazitako beste puntu bat ere kritikatzeko du Baso Biziak: “Basotik

dio karbonoa konpentsatzeko kredituak kudeatzea eta merkaturatzea egongo dela. Balantze orokorrean, biomasa industrialera bideratutako landaketa batek ez du emaitza positiborik CO2ren borrokaren aurka. Frogatuta dago, epe motz eta er-taineko espezie monoespezifikoe-kin, balantze energetikoa negati-boa dela”.

Foru Aldundiari eskaera

Bere balorazioarekin amaitzeko, plataformak zera eskatzen dio Foru Aldundiari: “Kontuan har ditzala egoera tamalgarri honetara ekarri gaituen monolaborantza sistema-ren ardurak eta kalteak, eta bide berriak jorratu ditzala uraren, lurra-ren, airearen eta horri lotuta dagoen herritarren osasunaren mesedera-ko. Ezin gara bueltatu goia jo duten eredu zaharretara, pinuaren selekzio genetiko zahar-berriak promozio-natuz eta egur-lobbyaren presioei jaramon eginez, soilik. Denon di-rua, denon onura. Jarrai dezagun urratsak ematen Baso Bizien Alde”.

"Aldundiarentzat landaketa monoespezifikoak ere basoak dira, baina Gipuzkoan %25 bakarrik da basoa"

"Aldundiak monolaborantza mozorrotuaren aldeko apustua du mahai gainean"

Bazkaltzeko? Eskubaloia!

Aurten J.D. Arrateren 75. urteurrena eta Eibar Eskubaloiairen hamagarrena ospatzen dugun honetan, gure herriko eskubaloiairen inguruko jendeak urte osorako antolatutako ekitaldien artean egun handia izango da zapatu honetakoa. Biharko, hilak 16, herri-bazkaria antolatu baitute; bertara bilduko dira jokalaria, jokalaria-ohiak, bazkideak, zaleak... "eskubaloiko pasadizoz betetako jaia egiteko".



Bazkariaren prezioa 35 eurokoa da eta hor sartzen da egun osorako programazioa. Egitarauari eguerdikoa 12:00etan emango diote hasiera, Ametsa tabernan, eta bertan jasoko dituzte akreditazioak eta banatuko dira opariak. Handik ordu erdira, 12:30ean, talde-argazkia egingo dute Untzaga plazan. Eta 13:00ean, berriro ere Ametsan, koktela, urdaiazpiko-ebakitzaila eta barra librea izango dira. Arratsaldeko 15:00etan hasiko da aipatutako herri-bazkaria, Errebal Plazan, honako menuarekin: otarrainxkak, barrazki-menestra, zapoa, masailak eta



Javier Fernandez, Enrique Curiel, Jon Iraola, Gaizka Bilbao eta Guadalupe Ibañez, Errebalgo erakusketaren aurkezpenean.

postrea. Eta egunari amaiera emateko, 18:00etatik 22:00ak arte, eta Ametsan berriro, DJ, "gure barra",

photocall-a eta sorpresa gehiago izango dira. Egun ezin aproposagoa izango da aspaldiko lagunekin berriz ere topo egiteko eta sasoi bateko hainbat bizipen berriro ere gogoratzeko.

JD Arrate, aitzindaria

Juventud Deportiva Arrateren historia 1947ko uztailaren 17an hasi zen; domekan beteko dira, beraz, 75 urte egun hartatik. Elastiko zuria, marra urdina trabeska zuena: horixe izan zen aukeratutako jantzia. Futboleant eman zituen lehenengo urratsak, 1965ean futbol talde hori SD Eibar-en esku geratu arte, jokalaria guztiak Eibar Urko taldean sartzeko.



1965eko irudi honetan sasoi batean asteburuero Untzagan bizi ziren partiduetako bat.

Eta 1965eko uztailaren 25ean Arrate taldearen zuzendaritzak eskubaloi taldea sortzea erabaki zuen, 65-66 denboraldian bere lehen pausoak emango zituen. 1965eko irailaren 26an jokatu zuen lagunarteko lehen partidua, Untzaga plazan, Donostiako Cervezas Oro y Norte taldearen aurka galdu zuena. Handik hiru astera debutatuko zuen Ligan, 2. Maila Probintzian, hori ere Untzagan, goizeko 11:15ean, Hernanirekin 16-18 galtzeko. Handik astebetara bere lehen garaipena lortuko zuen Usurbilen (17-18).



Emakumezkoen Arrate taldea, 1976-77 denboraldian.



66-67 denboraldian eskubaloi talde bi zeuden, helduena eta gazteena, azken hori orduantxe sortu berria. 1967ko maiatzaren 18an urazpiko taldea ere sortu zuten, gogoz hasi eta bizpahiru arrantza lehiaketetan parte hartuko zuena. Pilotan ere hogeiren bat pilotari zebiltzan hainbat mailatan jokatzeko, Arraterentzat pilotaren urterik onenak izan ziren haietan. Eta atletismoan ere jardun zuten hainbat urtetan.

1978ko abenduaren 1ean Bingo zabaldu zen, gero Arrateren diru-iturri nagusia izango zena. Euskadiko selekzioaren lehenengo



partidua ere Eibarren jokatu zen, 1979ko urtarrilaren 20an. 1981eko ekainaren 6an JD Arrateren I. Eguna ospatu zuten, Unibertsitate Laboralean hainbat ikuskizun eta ekitaldirekin.

Emakumezkoen JD Arrateren lehen taldea 1976an abiatu zen eta bizipen asko izan dira urte haueetan guztietan eman direnak. Kluba desagertzearekin batera, Eibar Eskubaloiak hartu zuen zaletasun horren ardura gurean, orain dela hamarkada bat, ibilbide arrakatsua ginez, kirolaren aldekoa.



Gizonezkoen Arratek Ohorezko Mailan debutatu zuen 1973-74 denboraldian.

GAIZKA BILBAO •

Eibar Eskubaloiko presidentea

“Ilusioa beharrezkoa badugu ere, proiektua sendoa izan behar da”

Bost urte daramatza Eibar Eskubaloia klubaren presidente karguan. Denetarik egin izan du eskubaloia arloan, baina batez ere "entrenatzaile" ikusten du bere burua. Amañako eskubaloi-ekolan sortua, 22 urtera arte Eibarren atezain izan zen, Zarautzera joan aurretik.

Zelako emaitza izan dute orain arte urteurren bikotizaren inguruko ekitaldiek?

Azken hamar urteotan Eibar Eskubaloiarekin egin-dako ibilbideaz aparte, JD Arratek herrian izan duen pisua ondo nabaritu dugu, modu horretan jende nagusiagoa ere gerturatu zaigulako. Argazki-erakusketa arrakastatsua izan zen oso, eta horren jarraipenaren bila ere bagabiltza, beste espazio batean egiteko. Lan zaila izan da argazki guztiekin 30 minutuko laburpena egitea, pazientzia behar izan dugu lan hori egiteko, eta sentimenduak ere ez dira falta izan. Emakumez-koen txapelketa ere ekarri genuen gurera, Gabonetan, Euskadiko selekzioarekin. Goi mailako eskubaloia gerturatzeko asmotan jarraitzen dugu.

Sari eta errekonozimenduak ere izan dituzue...

Bai. Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak, gu omentzeaz aparte, sari berezia ere eman zigun. Eta Madrilen Espainiako Federazioaren saria ere eman ziguten orain dela aste gutxi, errekonozimendu berezia egiteaz gain.



Herriak eskubaloi ordezkariak omendu zituen Sanjuanetan.

Zein ekitaldi geratzen zaizue urtea amaitu aurretik? Zeezer bereziren bila zabilzate akaso?

Dokumentalarekin dihardugu orain, ikus-entzunezko hori eskubaloia inguruko jende esanguratsuekin egingo dugu. Oso zabala izango da, Jordi Rivera, Imanol Alvarez eta Jorge Dueñas bezalako esanahi handiko jendearekin. Hasiera hartako zuzendaritzako jendea ere izango da bertan... Nahiko kostatuko zaigu ordubete bueltako lanean mundu guztia sartzea. Irailaren 26an egingo genuke aurkezpena Coliseoan, data horretakoa delako Eibarren jokotutako lehenengo partidua eskubaloian.



Aurten Nojan antolatutako eskubaloi campus-ean harrapatu genuen Gaizka Bilbao, beti bezala eskubaloia alde burubelarri jarduez.

>>> "Herriko eskubaloiairen bueltan gabiltzanok familia bat gara, igoera fasean Ipuruan ikusi ahal izan zen bezala"

>>> "Irailaren 26an dokumentala aurkeztuko dugu Coliseoan, data horretan jokatu zelako lehen eskubaloia partidua Eibarren"

Zelan katalogatuko zenuke azken denboraldia?

Kantxan gure taldeek ondo erakutsi dute gaur egun duten maila. Senior mailako bi taldeek igoera faseak jokatu dituzte eta emakumezkoenak, gainera, gol bategatik kantxan lortu ez zuten saria gero jaso ahal izan dute. Gizonezkoen taldeak fase hori Ipuruan jokatzeak, bestalde, klubean osatzen dugun familia handia erakusteko aukera eskaini zigun. Hona etorritako talde guztiek zoriondu gintuzten eta, gure partetik, jokalarien guraso eta lagunek izan duten konpromisoa eskertzea besterik ez dagokigu. Senior mailako beste bi taldeek ere bikain jardun dute: Euskal Ligan debutatzen zuen gizonezkoenak mailari eutsi eta Aratosteetan jokatutako Kopa berezia irabazi zuten. Eta emakumezkoen dagokienez, lehen aldia da gure eskubaloiak bi talde dituen seniorretan.

Harrobiko taldeek ere bikain erantzun dute, ezta?

Bai, zalantza barik. Jubeniletan, mutilen taldeak



Euskal Ligari eusteaz gain, emakumezkoenak igotzea lortu du. Talde gehienak Euskal Ligan ditugu. Horrez gain, pandemia sasoian kirola maila txikian praktikatu ahal izan duten gazteekin ere lau talde osatu ditugu. Eskubaloia eskolak, azkenik, beste ehun ikasle hartu ditu bere gain. Eta gaur hemen nago, Nojan, lehen aldiz antolatu dugun campus-ean.

Zenbat jokalariren bueltan dabil kluba gaur egun?

Urtero 300 bat izango dira, batazbeste.

Kirol arloan bestelako aurrerapausorik emateko asmorik bai? Klubak osasun ona du?

Adi egoten ahalegintzen gara, jokalaria onak eta garrantzitsuak izan daitezkeen bila gabiltzanok. Baina herriko jokalaria pisu berezia izan behar dute taldean, bestela epe motzeko jokalariekin egingo genuelako topo. Herriari eskubaloia sana eskaini nahi diogu, ekonomikoki aldrebestu barik. Helburuak tresnen arabera zehaztu behar ditugu. Beti ere, ilusioari eutsiz, baina proiektu sendo eta zentzudunei jarraituz; hankak lurrean izan behar dira beti.

Badago Eibarko jokalaririk hemendik kanpo jokatzen?

Asobal Ligan hor daude hegaleko Mikel Zabala Irungo Bidasoan, maila ematen gainera, eta Yeray Lamariano atezaina Atletico Valladoliden. Azken hau laguntzaile dugu gainera, distantziara baina laguntzen. Buruan dugu Valladolid eta Bidasoaren arteko neurketa Eibarrera ekartzea ere; ea ahal dugun! Bestalde, Ander Iriartek Aranda de Duero taldearekin sinatu du, aurretik Ibizan jokatu ondoren. Bartzelonako filialean jokatzen duen Jokin Aja berak ere asko progresatu du azken hiru denboralditan. Eta ezin dugu ahaztu Eibarren jaiotako eta Danimarkako Ligan jokatzen duen Cindy Birberg bera ere.



Gaizka Bilbao Arraten ospatutako eskubaloiairen jaialdi batean.

Eibar FT-ko emakumezkoen lehen taldeak aurpegi berri asko izango ditu hurrengo denboraldiko maila berrian

Maila galtzarekin batera, Eibar FT-ko emakumezkoen lehen taldeak al daketa asko dihardu egiten hurrengo denboraldirako plantilla osatze bidean. Azken denboraldian taldean izan ziren 11 jokalarik agur esan diote taldeari, tartean kapitaina izan den Nerea Gantxegi eibartarrak. Berarekin batera, Malena Mieres, Queralt Gomez, Ruth Alvarez, Aida Esteve, Maria Llompert, Carla Morera, Arola Aparicio, Miriam Rodriguez, Natalie Muth eta Elba Berges izan dira taldea laga dutenak. Azkenak, Bergesek, kontratua berritu zuen, baina jaitsierarekin klubetik irteke aukera baliatu du. Armaginen harrobian hezitako Nerea Gantxegik, bestalde, bost denboraldi eman ditu lehen taldean, azken honetan 13 partidu jokatzeko.

Bestalde, Noelia Garciak, Noko Matlouk eta Honoka Yoneik denboraldi baterako berritu dute kontratua, eta Ane Camposek bi denboraldirako. Eurekin batera, Irati Martin eta Marta Lopez de Gereñu eibartarra bigarren taldetik igoko dira. Harrobiko eskuin hegaleko



atzelaria azken denboraldiko neguko merkatuan Granadara joan zen lagata eta Espainiako selekzioaren behe mailetako deialdietan ohi-koa izan da, aurretik ere Eibarko lehen taldean jokatzeari aparte. Irati Martin durangarra, bestalde, kadete mailan iritsi zen Eibarrera eta azken denboraldian hirutan jokatu izan du lehen taldearekin; erasoko jokalaria Euskal Ligako goleatzailerik onena izan da, 25 golekin.

Azkenik, orain arteko dozena erdi fitxaketak honakoak dira: A Coruña-ko Deportibotik etorri dira Ibañez

erdilari galdakaotarra eta Sierra eskuin hegaleko atzelari bilbotarra, Santanderreko Racing-etik datoz Camino kantabriarra eta Andres Aranda de Dueroko atzelaria, eta Real Oviedotik Miralles Castelloko atezaina, 2. Mailan partidu gehien jokatu dituen jokalaria izan eta gero. Seigarren fitxaketa Juliana Aparecida Paulino "Jujuba" da, aurretik ere Eibarren jokatu duen erdiko atzelari brasildarra. Urte baterako sinatu duen Jujuba kenduta, beste jokalaria guztiek bina denboraldirako sinatu dute.

Pirinioetara hiru etapako irteera antolatu dute Deporrekoek



Klub Deportiboko mendizaleen taldea Picos de Europako Torrecerredon (2.650 metro).

Hilaren 23tik 25era Klub Deportiboko mendi batzordeak opor aurretik antolatutako azken irteera egingo dute, orduko horretan Pirinioetara. Interesatuek informazio gehiago honako helbidean aurkitu dezakezue: <https://www.deporeibar.com/mendia/eu/2022/07/08/uztailak-23-24-25-pirinioak-3000-ibones/> Aurreko asteburuan bi zeharkaldi egin zituzten Picos-en, 2.600 metro-tik gora: Torrecerredora zapatuan eta Torrevejara domekan.



JON MIKEL MUJIKA

Hesiaren beste aldea

Joan dira san ferminak, Euskal Herria munduan kokatzen duten jai unibertsalak. Denetik dute san ferminek, onetik eta txarretik. 8 egun eta 8 gau, parranda asko eta kultura gutxi, adiskidetasuna eta bortxaketak, txupinazoko ikurriña eta UPN. Eta nola ez, Iruñeako jaiek ardatz dituzten zazpi entzierro.

Festek irauten duten bitartean, goizero goizero, 6 zezen eta 6 joaldunek Santo Domingoko eskortatik zezen plazarainoko bidea egiten dute. Beraien aurrean lasterka, ehundaka korrikalari, zezenen adarretara zein gehiago hurbildu, adardunen hauspoa nork gertuen sentitu. Ikuskizun horri begira, hesiaren beste aldean, Iruñean bertan edo telebistaren aurrean, milaka, milioika. Ume beldurtu baten gisan, eskuakin euren aurpegia estaliz, baina hatzen arteko zirrikituetatik begira. Ikaraz, baina aldi berean korrikalarien ausardiaren inbidiatan.

Joan zen asteburuan, entzierro ikuslearen sentsazio antzekoa izan nuen Amañako festetako kontzertuetan. Oholtzan, Tropa do Carallo. Evaristo Paramos handia buru duen musika taldea. Berarekin batera, 80. hamarkadatik gaurdaino punk rockaren munduan bizi izan diren beste lau musikari. Tranpaldo azpian, hamarnaka punk zale, oihuka, saltoka, kantari, dantzan, bultzaka... dena ematen. Eta handik 50 bat metrotara, txosnako barrak ematen duen babesean, ni, nire kuadrilako beste dozena erdi kide, eta orain 20 urte San Andres pasealekuko taberna-zuloetan gertuko izaten nituen beste hogeitatu bat ezagun.

“Adinaren kontua izango da” nioen nere baitan, zerbeza katxi bat lau lagunen artean konpartitzen genuen bitartean. Baina ez. Evaristo, bere 62 urteekin Cebada Gagoren zezen baten aurrean korrika ari zen. Eta gu, begira.

Urteak betetzea ez. Hesiaren beste aldera pasatzea, horixe da zahartzea.

**"Joan zen
asteburuan,
entzierro ikuslearen
sentsazio antzekoa
izan nuen
Amañako festetako
kontzertuetan**



Aldaketaz betetako bertso-afaria izango da Arraten

Orain dela urte bi, 2020an, pandemia zela-eta, Arrateko bertso-afaria ezin izan zen antolatu, beste gauza asko moduan. Iaz, ohiko afaria ez, baina bertso-saio bereziaz gozatze-ko aukera izan zuten bertsozaleek, Arrateko elizan egin zen saioan.

Aurten, egoerak hobera egin duela-eta, Arrateko ohiko bertso-afaria antolatu eta egiteko aukera izango du ...eta kitto! Euskaraz Elkarteak, bertsozaleen bertso-egarria asetzeko modukoa. Aldaketaz betetako

edizioa izango da, hori bai. Bate-tik, lekuz aldatuko du. “Hainbeste urtez Arrateko bertso-afariaren kabia izan den Kantabria jatetxea itxi egin dute. Pena handia sentitu dugu, urte zoragarriak egin ditugu bertan eta bertso-saio biribilak irten dira bertatik. Eta zer esan Maite eta Loreari buruz; esker oneko hitzak besterik ez ditugu bientzat”, diote bertso-taldekoek. Tiro Pitxon jatetxeak hartuko du aurtengo saioa, eta antolatzaileak pozik daude aukera

horrekin ere: “Aukera aparta da; jangela txikigiagoa da, 80 bat laguntzat lekua izango du, baina afaltzeko eta bertso-saioaz gozatzeko leku paregabea da”.

Eta, bestetik, bertsolarien alde-tik ere izango da aldaketarik, eta ez nolanhikoak: “Lekua aldatzeaz gain, saioari berari ere beste buelta bat eman nahi izan diogu, aire berri bat eman, eta hainbeste urtez etorri izan den Egaña-Lizaso tandem-a ez da aurten Arraten izango. Ez da erabaki erraza izan, hogeita bost urtetan etorri izan dira eta Eibarko eta inguru-tako bertsozaleok asko maite ditugu. Dena dela, erabaki honek ez du esan nahi beste inoiz etorriko ez direnik”.

Tiro Pitxon jatetxeko mahai printzipalean izango diren lau bertsolari-riak puntakoak izango dira aurten ere; nor baino nor jardungo dute Jon Mikel Mujikaren esanetara Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolari-ek. Sarrerak, ...eta kitto!-ko bazkideentzat, hilaren 22ra arte salduko dira elkartearen egoitzan (36€), eta uztailaren 23tik aurrera Guridi eta Kultu tabernetan eta Tiro Pitxon jatetxean (38€).

Euskeraz primeran! udako merkealdien azokan izango da

Datorren asteko eguazten, eguen eta barixakuan egingo den udako merkealdien azokan txokoa izango du berriro ere Euskeraz primeran! kanpainak. Herriko ostalari eta dendarien artean euskararen erabilera handitzea du helburu kanpainak, baina ekimen honekin herritarren artean ere zabaldu nahi du gutxienez lehenengo

berba euskaraz egiteko konpromisoa. Horretarako prest daudenek joko dibertigarri eta erraz batean parte hartzeko aukera izango dute eta, erosketa-poltsa jasotzeaz gain, Eibar Merkatalgune Irekiak emandako 100 euroko erosketa-txartelaren zozketan sartuko dira. Zozketa barixaku eguerdian egingo da, 12:30ean.





Film Laburren Jaialdirako lanak aurkezteko epea gaur itxiko dute

Gaur amaituko da Eibarko Udalak eta Plano Corto elkarteak deitutako Asier Errasti Eibarko XXIII. Film Laburren Jaialdirako lanak aurkezteko epea. Lehiaketak bi atal ditu, fikzioa eta animazioa. Espainian jaio edo bizi diren film laburren egileek har dezakete parte, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako lanekin.

Izen-ematea elektronikoki egin behar da, Udalaren webgunean aurkituko duzuen formularioa beteta. Lehiaketari buruzko argibide gehiago ere bertan aurkituko dituzue. Eskaerari dokumentu hauek erantsi behar zaizkio: film laburraren sinopsi txiki bat (bi lerrotan), film laburraren fotograma bat esku-orrirako eta film laburraren fitxa teknikoak.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak eska daitezke

Udaleko Euskara Saitetik jakinarazi dutenez, lokal komertzial, industrial eta elkarteetako egoitzetako errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntza eskaera egiteko epea azaroaren 12an amaituko da. Dirulaguntzak herriko lokal komertzialetako, industrialetako edo elkartearen egoitzetako irudi korporatibo osatzen duten errotulu, inskripzio eta elementuak euskaraz edo elebrietan (euskara-gaztelania) jartzeko izango dira eta diruz lagunduko den gastua, berriz, 2021eko azaroaren 13tik 2022ko azaroaren 11ra bitartean egindakoa izan behar da. Eskaerak elektronikoki egin daitezke, www.eibar.eus udal webgunearen bitartez.



Sanferminak girotzen egon da Ustekabe fanfarrea

Ustekabe txarangakoak Iruñean egon ziren barixakuan, Donostiako Bar Antonio danborradarekin batera Sanferminak girotzen. Gazteluko Plazatik abiatutako kalejiran Sarriegiren doinuak eta Sanferminetako doinu ezagunak tartekatu zituzten.

Danborrada horrek Ustekabe txarangarekin egindako ibilbidea ez da berria. Izan ere, Ustekabe txarangak 2014az geroztik jai guztietan jarri dio musika Bar Antonio danborradari. Eta, Donostian bezala, 2019an Iruñean ere elkarrekin hartu zuten parte.

Bar Antonio 1990ean sortutako danborrada konpainia da, nahiz eta kide askok aurretik Copco-ko danborradan parte hartzen zuten. Sukaldariz jantzita irteten dira kide guztiak San Sebastian egunean, baina zapi gorria gehitu diote Iruñeako festarako.

ARGAZ aldizkariaren 2. zenbakia

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak ARGAZ aldizkari digitalaren 2. zenbakia eman du argitara Interneten eta, nahi duenak, https://issuu.com/home/published/argaz_n_2 helbidean dauka eskuragarri. Ale honetan “Argazkilaritza Maitezean” egitarauaren barruan egin ziren erakusketa eta bestelako jardueri buruzko informazio osoa bildu dute eta, gainera, Pedro Arriola eta Adiel Zabala argazkilarien portfolioak ere ikus daitezke. Bestalde, taldearen YouTube kanalera bi bideo berri igo dituzte, uztailean Portalea eta Depor tabernetan ikus daitezkeen erakusketetako irudiekin.





Bertsolari Txapelketa Nagusiko kanporaketetako sarrerak salgai daude

Guztira hamalau saio izango ditu 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiak, “euskararen lurralde osoan jokatuko dena” eta ohiko hiru faseko sailkapen sistemarekin. 2017an finalean izan ziren bertsolariak finalurrean hasiko dira kantuan eta Maialen Lujanbio, gaur egungo txapelduna, finalean izango da.

Kanporaketetako egutegia lau zatitan banatu dute: hiru asteburu hartuko dituen lehenengo fasea, beste lau asteburu hartuko dituen finalurrekoen lehen itzulua, beste hiru asteburu hartuko dituen finalurrekoen bigarren itzulua eta, azkenik, finala. Saio guztietarako sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian, eta hainbat abantaila izango dituzte Bertsosale Elkartekeo bazkideek.



Uztaileko barixakuetan ere eskainiko dute zinea Coliseoan

Coliseo antzokiko zinema eskaintzarekin gozatzeko aukera zabalagoa egongo da hil honetan, uztaileko barixakuetan filmak proiektatuko dituzte aurreko asteburuan hasitako bidetik. Barixakuko emanaldiak 20:00etan izango dira; zapatukoak, 17:00etan, 19:45ean eta 22:30ean; domekakoak, 17:00etan eta 20:00etan; eta, astelehenetakoak, 20:30ean.



Kurtsoko azken kontzertua emango du bandak gaur

Big Band kontzertua eskainiko du Eibarko Musika Bandak gaur gauean, 23:00etatik aurrera, Toribio Etxebarria kalean (eguraldiaren arabera saioa Errebalera aldatu liteke). Gaurko emanaldiarekin agurtuko du ikasturtea bandak irailean bueltatzeko, udako oporren ostean.


KZguneak prest dauka irailerako ikastaroen eskaintza

Eibarko KZguneak prest dauka irailerako planifikazioen eskaintza. Ikastaroetan izena emateko KZgunea joan daiteke (aldez aurretik hitzordua eskatuta, 943 02 36 37 telefonoan), telefonoz deitu edo, bestela, web orriaren bidez egin daiteke (www.kzgunea.eus). KZgunea Portalean dago eta astelehenetik barixakura zabaltzen dute, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako, ikastaroen katalogoa kontsultatu daiteke helbide honetan: <https://www.kzgunea.eus/eu/ikastaroak>.

Euskaraldiaren kantua



Euskaraldiaren hirugarren edizioa iragartzeko abestia aurkeztu berri dute Xabier Zabalaren musika eta Andoni Egañaren hitzekin sortutako “Esazu hitz bat” izenburuko kantuari bost abeslarik jarri diote ahotsa: Andoni Egaña hitzen egileak berak, Zea Mays taldeko kantari Aiora Renteriak, Petti Berako musikariak, Maddalen Arzallus bertsolari eta kantariak eta Ainhoa Larrañaga Hernaniko musikari eta aktoreak. Kantuarekin batera, gainera, bideoklipa aurkeztu da.



L
A
B
I
R
I
N
T
O
A



**AURKITU
10 EZBERDINTASUNAK**



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		1			
3	1		9		2
				5	8
1	2	9	5	3	
	4	3		9	6
	9		6	3	2
6		4			
2		8			7
			6		

8	7	9	5	1	4
2	9	6	1	8	3
4	5	2	7	6	9
1	8	3	9	2	5
6	1	5	8	4	7
7	2	4	6	3	9

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			4		
		6	1	5	4
	4	6		7	1
1		7		2	
8	5			6	7
	2		3		8
	1	4	3	7	
3	2	1	6		
		5			

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

Uztailak 15 / 21

BARIXAKUA 15

AMAÑAKO JAIAK

14:30 Jubilatuetako bazkaria. Untzaga Plaza hotela.


SANKRISTOBALGO JAIAK

19:00 Kalejira, "La Banda Mágnetica" taldearekin.

19:15 Tortilla, txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta, auzoko tabernetan eta Jai Batzordearen barretan.

23:00 Kontzertua: "Cien Duros".

00:15 Kontzertua: "Trogloglitas". San Kristobal.



MUSIKA

20:00 Eibarko Musika Bandaren "Big Band" kontzertua. Toribio Etxebarria kalea (eguraldiaren arabera, Errebalen).

Eibarko Musika Banda

Big Band Kontzertua



15/07/22

20:00

Toribio Etxebarria

Toribio Etxebarria

Toribio Etxebarria

Toribio Etxebarria

ZAPATUA 16

ESKUBALOA

12:00 J.D. Arrate eta Eibar Eskubaloien urteurrena. Hasiera, akreditazioak eta opariak. Ametsa taberna.

12:30 Argazkia. Untzaga.

13:00 Koktela. Ametsa taberna.

15:00 Bazkaria. Errebal.

18:00/22:00 DJ-a, photocalla, sorpresak... Ametsa taberna.



SANKRISTOBALGO JAIAK

12:15 Sandia-jana. Aizarnako parkea.

12:30 Lambretta motorren igoera San Kristobalera. Hamaiketakoa parte-hartzaileentzat. Lambretta motorren erakusketa San Kristobalgo plazan.



19:00 Dardo txapelketa, nagusientzat, San Kristobalgo plazan.

19:30 "Kallejonada", Dominguez mariatxiarekin.

21:00 Herri-afaria, plazoletan.

22:30 70'-80' Festa, DJ Xantirekin.

00:00 Kontzertua: "Algo de mi", Camilo Sestoren omenez.

00:00 80'-90' Festa DJ Xantirekin.

02:30 Txokolatada, musutruk. San Kristobal.

DOMEKA 17

SAN KRISTOBALGO JAIAK

12:30 Paella-txapelketa, plazoletan.

13:30 Luntxa, plazan agertzen diren guztientzat.

13:45 Txapelketaren amaiera.

14:15 Sariak banatzeko ekitaldia.

14:30 Rifaren zozketa.

18:00 Jaien amaierako traka. San Kristobal.

EGUAZTENA 20

MERKEALDIEN AZOKA

10:00/20:00 Udako merkealdien azoka. Toribio Etxebarria kalea.



EGUENA 21

MERKEALDIEN AZOKA

10:00/20:00 Udako merkealdien azoka. Toribio Etxebarria kalea.

ODOL-EMATEA

16:30/20:30 Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Untzagako jubilatuetxea.

ERAKUSKETAK

Uztailaren 31ra arte:

- **Jose Luis Garcia de Madinabeitia, Txaro Barinaga-Rementería, Nekane Aramburu eta Pili Aguayoren argazkiak.**

(Klub Deportiboa eta Portalea taberna).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

IKUSKIZUNA

15ean (barixakua)

Orbe Kardinalaren plazan

17:30: Zirika Zirkus

KONTZERTUA

16an (zapatua)

Orbe Kardinalaren plazan

23:30: Skakeitan

KONTZERTUA

18an (astelehena)

Martxoaren 8a plazan

22:30: Rafa Rueda

KONTZERTUA

19an (martitzena)

Martxoaren 8a plazan

22:30: Petti

DEBA

DANTZA IKUSKIZUNA

15ean (barixakua)

Plaza Zaharrean

22:00: "GenEroa"

Kimua kolektiboa eta

Ekaitz Goikoetxea

KONTZERTUA

16an (zapatua)

Orbe Kardinalaren plazan

20:00: Nazioarteko Flysch

Organo Kontzertua

ELGOIBAR

KONTZERTUA

15ean (barixakua)

Maalako Parkean

20:00: Gabi eta Alfonso

bikotea eta K-GA-T- taldea

Elgoibar Bizirik

plataformak antolatuta

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **15an:** 20:00
- **16an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **17an:** 17:00, 20:00
- **18an:** 20:30

“Mamá no enRedes”
Zuzendaria: Daniela Fejerman



2 ARETOA

- **15an:** 20:00
- **16an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **17an:** 17:00, 20:00
- **18an:** 20:30

“Mis queridísimos hijos”
Zuzendaria: Alexandra Leclere



ANTZOKIA

- **15an:** 20:00
- **16an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **17an:** 17:00, 20:00
- **18an:** 20:30

“Padre no hay más que uno”
Zuzendaria: Santiago Segura



<p>*** FUNEUSKADI Simplek kultura</p>	<p>*** FUNERARIA MUGICA Funerariak</p>
<p>*** TANATORIO EIBAR</p>	<p>*** TANATORIO HERMATOZ ELGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Ozaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Kaxilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

Maritxu Agirrebeña Arriola

9. URTEURRENA
2013/07/07

“Zuk emandako maitasunak gurekin jarraitzen du”

- MAITE ZAITUGU, AMAMA -

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **JULEN**, bixar 3 urte beteko dozuz-eta. Segi holan. Patxo eta besarkada bat famelixaren eta, batez be, aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, **KEPA**, hillaren 12xan 2 urte bete dozuz-eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARKEL**, mutil haundi, astelehenian 6 urte egin zenduaz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANER!** Martitzenian 12 urte egin zenduaz-eta. Besar-kada haundi bat famelixa guztiaren partez. Holan segi, txapeldun!



Zorionak, **NILE**, martitzenian 6 urte bete zenduaz-eta. Patxo demasa famelixa guztiaren eta, batez be, zure anai Pello, Po!, amatxo eta aitatxoren partez.



Zorionak, **PAULE!!!** Eguaztenian 12 urte bete zenduaz-eta. Disfrutatu oporrak, ondo merezitta dozu-eta! Musuak guztion partez!



Zorionak, **ENEKO**, gaur 7 urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi-haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **NAIA**, hillaren 12xan 10 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **JARE** eta **MALEN!!!** 10 urte!!! Jarraitu irrifar polit horrekin!!! Oso ondo pasa zuen egunian. Patxo potolo bat!

"Nahiz eta gure aldamenian ez egon, beti egongo zarete gure bihotzetan"

ESKERRIK ASKO gurekin egon zareten guztioi
- EGURENGUAK -

Jose Antonio Andonegi Gabilondo
2022/04/09

Timotea Etxaniz San Martin
2020/07/05
2. URTEURRENA

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Errioxako Fuenmayor-en, Logroñotik 5 minutura. 3 logela. Egoera onean eta zentrikoa. 60.000 euro. 657779811..

1.2. Errentan

- Deban etxe bat alokatzen da abuztuan. Prezio onean. 677336775.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.

- Zumaian etxebizitza alokatzen da hamabostaldika uztaile, abuztu eta irailean. 2 logela ditu eta ondo kokatua dago. 616382416.
- Unibertsitatean ikasten diharduen bikoteak (lan finkoarekin) pisua hartuko luke alokairuan. 1 edo 2 logelakoa. Erreferentziak. 637918620.
- Bikoteak (alabarekin) pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. 664823992.
- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667059774.
- Donostian pisua alokagai uztaile eta abuzturako. Zurriola hondartza ondoan. 33 metro2. 150x190ko ohea. Laboraririk ez du (metro gutxira labandaria). Bi hilabeteak: 2.500 euro. Hilabete osoa: 1.200 euro; 20 egun, 1.000 euro. Argazkiak bildatzen dira. 747447151.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). Erreferentziak. 612461563.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 631750397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 622023451.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Orduka. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta janaria prestatzeko. 14 urteko esperientzia. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (osasun tituluarekin) eta garbiketarako egiteko. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Profesional tituluarekin. 633946701.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita gauez ere) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 661079635.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. 667060292.

4.2. Langile bila

- Pertsona euskalduna behar da irailetik aurrera goizetan umea haurreskolara eramateko. 699495279.
- Kirol teknikaria behar da. Beharrezkoa: euskera jakitea eta aquabike, aquafitness eta igeriketa ikastaroak emateko ikasketak izatea. 688610620. eibarigerixan@gmail.com
- Elgoibarko enpresa batek jendaurrerako eta biltegirako pertsona behar du. Ordenagailuko gutxieneko ezagutzak eta gidabaimena izatea baloratuko dira. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculum Eibarko 331 postakutxatilara.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com

- Administrari profileko pertsona behar dute Eibarko hortz-klinika bateko kide izateko. Sektorean esperientzia izatea eta euskera jakitea baloratuko dira. Bidali curriculum: dentalweb@hotmail.com
- Idazkaria behar da aholkularitza batean. Orduka. luengo41@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitate prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Camper furgonetari atxikitzen den geladun kanpin-denda salgai. 70 euro. 695708100.
- DBH4-ko liburuak erosiko nituzke. 637587811. Amaia.
- Ponyak saltzen dira. 679824081.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. 688624326.

6.2. Eman

- Alemaniarrantzain bi txakur oparitzen dira. 612298060.



osasun gida

Kirol Medikuntza

ZERBITZU MEDIKOAK

ATHLETE FISIOTERAPIA ETA KIROL BERREGOKITZEA

- ONARRIZKO MEDIKUKIROL AZTERKETA
- ESFORTZU PROBA KLINIKOA
- ESFORTZU KIROL PROBA



EIBAR Indalezio Oyarzunen, 1 - behea 6
 Oribia hartzeko edo informazio jasotzeko:
 cvfisiologiadeportiva@gmail.com
 943 05 78 98

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
 838200124
 kolegiatu zerbaki



T. Etxebarria, 5 - 1. A
 943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGO
 T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
 (Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Logopedak

AHOTS-LAN
 LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
 943 202691
 ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua
 Degluzio atipikoa / Disfonia
 Ikaste-arazoak / TDAH
 Berba arazoak / TEA / Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
 943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
 943 799746

PODOLOGOA
 Erdiko klinika

Nerea Arregi (112 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

Psikologoak

AMETS
 PSIKOLOGIA KLINIKOA
 ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. beheko
 www.amets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoan
 PSIKOLOGOA (2019/191) iragarpen - Master P.N.L.
 Tel. 675 70 68 07 - Trainer

Okulistikak

Recalde
 Clinica Oftalmológica
 Oftalmologi Klinika

•Kataraten kirurgian
 espezialistak.


R.P.S. 204/13



Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
 www.clinicarecalde.com

PODOLOGOA

Maidor
 Lopez
 Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea B
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
 HELDUENTZAKO
 PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
 Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
 www.arratepsicoterapia.com

Psikologia klinika eta
 Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
 GORDEZ ETA ARRATSALEZ

Urkuizua, 13 - behea
 Tel. 943206823 / 686859023



943-206776

HELDU!

Ekintzailetza berritzailea
Emprendizaje innovador

EIBARKO EKINTZAIETZA-PROGRAMA

ZURE NEURRIRA PRESTATUTAKO FORMULA



TUTORETZA



AHOLKULARITZA



FORMAZIOA

➔ IZENA EMAN IRAILAREN 11 BAINO LEHEN:

 heldueibar.debegesa.eus

 ekintzaile@debegesa.eus